

2021. Ordenantza fiskalak. Behin betiko onarpena 2020ko irailaren 25ean izandako Bermeoko Udaleko Osoko Bilkuran BAO 2020/10/06. 192. zk.

**NESTOR BASTERRETXEA ARETOA, GIZARTE ETA KULTURA ETXEKO GELEN
ERABILERA PRIBATIBO EDO APROBETXAMENDU BEREZIAREN TASA ARAUTZEN
DUEN ORDENANTZA FISKALA**

1.artikulua: KONTZEPTUA

Udal eraikinen aprobetxamendu berezia erregulatzeko, herri jabariaren erabilera pribatiboaren edo aprobetxamendu bereziaren tasa ezarri da, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 106.artikuluak emandako ahalmena erabiltzeko eta Tokiko Ogasunen abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 21.artikuluaren ezarritakoarekin bat etorrira. Tasa hori ordenantza fiskal honek arautuko du, eta haren arauak Foru Arau horren 22.artikuluaren eta hurrengoetan ezarritakoa bete beharko dute.

2.artikulua: ORDAINARAZPENAREN XEDEA

Udal jabari publikoaren eraikinen erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia izango da ordainarazpenaren xedea.

3.artikulua: SUBJEKTU PASIBOA

Udal jabari publikoaren erabilera pribatiboen eta aprobetxamendu berezien tasen subjektu pasiboak (zergadunak) Zergei buruzko Bizkaiko Foru Arau Orokorren 34.3 artikulua aipatzen dituen pertsona fisiko, juridiko eta entitateak izango dira, betiere udal jabaria onura partikularrerako baliatzen, erabiltzen edo ustiatzen dutenean.

4.artikulua: SALBUESPENAK

Kultur etxe okupazioa eta erabilera tasa ordaintzea salbuetsita izango dute herriko irabazi asmo bako elkarteek edo taldeek antolatzen dituzten ekimenetan eta gizarte, kultura edo kirol laguntzarako helburuarekin antolatzen diren ekimenetan.

5.artikulua: OINARRI EZARGARRIA

Dagokion aprobetxamenduak dirauen denborak, lizentziaren arabera baimenduriko okupaziorako azalerak edo benetan okupatuak, eta aprobetxamendu horren ondorioz merkatuan izango lukeen erabilgarritasunaren balio erreferentziazat harturik, osatzen dute Ordenantza honetan araututako tasen kobrantza-oinarria.

6.artikulua: TRIBUTU-KUOTA

.- Artikulu honetan xedatzen denaren arabera, zergaren kuota tarifa bat edo ezarritako kopuru finko bat izango da:

1.- Nestor Basterretxea Aretoa erabiltzea:

<i>NESTOR BASTERRETXEA ARETOKO ERABILERA</i>	2021 (€)
Zinema, antzerki, musika emanaldietarako erabiltzea	52,16 € orduko
Erakusketa gela bat erabiltzea	169,03 € eguneko
Erakusketa gela bi erabiltzea	239,96 € eguneko
Aretoko sarreraren salmentako takila erabiltzea	13,66 € orduko

Areto horren erabileratik aparte, beste zerbitzu batzuk erabili gura badira, tarifa hauek ordainduta egin ahal izango da:

- Erakusketaren zaintza: 7,58 euro orduko
- Erabiltzaileak kokatzea: 12,94 euro orduko
- Gonbidatuei harrera egitea: 12,94 euro orduko

2.- Gizarte eta Kultura Etxeko gelak erabiltzea: Eranskinean agertzen da.

7.artikulua: SORTZAPENA

Tasa ordaindu beharra sortuko da erabilera pribatiborako herri jabariaren baimena ematen den unean bertan, hau da, erreserba egiterakoan.

8.artikulua: AUTOKITAPENA ETA ORDAINKETA

- Udal eraikinen aprobetxamendu pribatiboagatik jarritako kuotak erreserba egitean ordainduko dira.
- Tarifen arabera behartu daitezkeen zenbatekoak eskatutako edo erabilitako aprobetxamendu bakoitzagatik ordainduko dira eta dagozkien epigrafeetan adierazitako denbora naturalengatik ateratzen dena izango dira.
- Ordenantza honetan adierazten diren tasen likidazioa eta ordainketa aitorpen-autolikidazioaren araubidearen bidez egingo dira oro har, zerga-administrazioak Berhaz bulegoan horretarako eskuragarri jarriko duen eredu ofizialaren arabera.
- Aitorpena aurkezteko egintzan bertan ordaindu beharko da kuota hori.
- Tasa ordaindu behar duenari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik jabari publikoaren erabilera eskubidea garatzen ez denean, dagokion zenbatekoa itzuli egingo da.

AZKEN XEDAPENA:

Ordenantza hau behin betiko onetsi du Udalbatzak 2017ko abenduaren 22an egindako Osoko Bilkuran, eta argitaratu dira 2017ko abenduaren 29an BAO 247. zk. Halanda ze, indarrean jarraituko du harik eta beren beregi aldatu edo indarrrik barik utzi arte.

III ERANSKINA:

GIZARTE ETA KULTURA ETXEKO GELAK ERABILTZEAGATIKO TASA

Erabilera txandak honela zehaztu dira:

Neguko ordutegia:

	Astegunak	Zapatuak
goizean	09:00 - 14:00	10:00 - 13:00
arratsaldean	16:00 - 21:45	16:00 - 20:00

Udako ordutegia:

	Astegunak	Zapatuak
goizean	09:00 - 14:00	-----
arratsaldean	17:00 - 21:45	-----

Tarifa	Txanda: denbora
1	Gutxienezko 2 orduko txanda
2	Goiz edo arratsalde osoko txanda
3	Egun osoko txanda

BIGARRENA: Instalazio mota eta txanda orduen arabera tasa hauek zehaztu dira:

					2021 (€)
Non	Gela	Erabilera	Tarifa 1	Tarifa 2	Tarifa 3
Sotoa	S.1. Entsegu gela	rock taldeak	9,28	18,57	37,15
Sotoa	S.2. Entsegu gela	rock taldeak	9,28	18,57	37,15
Sotoa	S.3. Entsegu gela	rock taldeak	9,28	18,57	37,15
1go. Solairua	1.1 Entsegu gela	Musika eta dantza taldeak eta musika eta dantza ikastaroak	11,85	23,70	47,40
1go. Solairua	1.2 Entsegu gela	Musika eta dantza taldeak	9,28	24,92	49,82

		eta musika eta dantza ikastaroak			
1go. Solairua	1.3 Entsegu gela	Musika eta dantza taldeak eta musika eta dantza ikastaroak	13,70	27,41	54,81
1go. Solairua	1.4 Entsegu gela	Musika eta dantza taldeak eta musika eta dantza ikastaroak	12,03	24,06	48,11
1go. Solairua	1.5 Entsegu gela	Musika eta dantza taldeak eta musika eta dantza ikastaroak	21,87	45,23	90,46
2. Solairua	2.1 Batzar gela	10 lagunentzat batzar gela	8,61	17,22	34,44
2. Solairua	2.1 Gela	12 lagunentzat batzar gela	10,01	20,01	40,02
2. Solairua	2.2 Gela	12 lagunentzat batzar gela.	9,85	19,71	39,43
2. Solairua	2.1 Tailerra	eskariarekin eta kulturak antolatuta	16,60	33,19	66,40
2. Solairua	2.2 Tailerra	eskariarekin eta kulturak antolatuta	14,35	28,70	57,41
2. Solairua	2.3 Tailerra	eskariarekin eta kulturak antolatuta	12,03	24,08	48,14
3. Solairua	Hitzaldi aretoa	40 lagunentzat aretoa.	13,35	26,71	53,41